



## 1. Labe Garaia (Sestao)

Nerbioi ibaiaren ezkerreko bazterrean aurkitzen ditugu Espainiako estatuko industriarik garrantzitsuena izandakoaren hondakinak, Bizkaiko Labe Garaiei dagozkienak, eta horien artean berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik 1995ean behin betiko itzali zen arte martxan izan zena.

Soldatek beren horretan jarraitzearen, salmenta-prezioen igoerak eragindako etekinen gorakadaren eta Francoren diktaduraren hasierako urteetako autarkiaren amaieraren ondorioz, une egokia iritsi zen berrogeita hamarreko hamarkadan labe garaiak eraikitzeko. Hartara, sei labe berri egiteko proiektua egin zen, eta azkenean bi eraiki zituen G.H.H. enpresa alemanak, "Bikiak" izenekoak. Berriz erabili zen aurreko lau labe hartutako tokia, "La Benedicta" kaiaren, Renferen trenbideen eta Nerbioiko itsasadarraren artean. Gaur egun, bakarrak dirau zutik, 1959an altxatu zen 1. Labe Garaiak.

### Deskribapena

Amerikar estiloko upeleko etenik gabeko labea da. Ardatz bertikaleko egitura bat da, eta upela kanporantz soldaturiko xaflazko armazoi batekin dago estalita; barrurantz, berriz, material erregogorra du. Hala, aluminiodun adreilua erabili da upelean, eta karbono masa arragoan. Arrago horren euskarria, berriz, habe kurbo bat da, labe mota horretan tipikoa dena. Hozketa-prozesuan, itsasadarretik zuzenean hartutako ur gezia erabiltzen zen, eta bi deposituaraino ponpatzen zen ura. Bertatik igarotzen zen ura kanpoko egituran txertaturiko 440 kaxetara.

Labe garai mota horretako ekoizpen-sistema goiko aldean edo irenspidean hasten da; izan ere, bertatik sartzen da urtugarri gisa funtzionatzen duen burdina, cok eta hareharriaren nahasketa bat. Oinarritik beste elementu batzuei ematen zaie sua; elementu horiek erre egiten dira eta banaturiko bi isurbideetatik kentzen dira eskoria eta arrabioa, txikitzen diren neurrian. Gero, galdako nabera ateratzen dira, non zulagailu pneumatiko batek eta kainoi elektriko batek isurbideen irekiera eta itxiera kontrolatzen baitituzte. Kargak etengabe jartzen dira goitik, eta goiko aldetik txertatzen zen berogailuetatik zetorren 900°C-ko ur beroa toberen bitartez.

Aurreko labeetan eskuz kargatzen ziren mea eta ikatza, baina labe garai hauetan, banako karga-jasogailu inklinatuak (skipak) jarri ziren, eta karga bahetu ondoren, karga-jasogailu horiek biltegitik siloetatik irenspidera joaten ziren.

### Azterketa

1. Labe Garaia lehen mailako elementua da, XX. mendeko industrializazioaren erakusgarria, non burdina ekoizteko katea amaitzen baita. Euskal Herriko industrializazioaren aurreko garaian nabarmendu ziren antzinako haize-olen eta ondorengoko burdinolen oinordeko bikaina dugu. Oso hurreko iraganaren lekukoa da, zeinen silueta Bizkaiko industriaren erdigunearen sinboloa baitzen.

### Balorazioa

Euskal Herriko XX. mendeko burdingintzaren lekuko nagusitzat har daiteke, baita kultur ondareko elementutzat ere. Historiaren, teknikaren, ikonografiaren, paisaiaren eta gizakiarentzako balioaren baldetik, baloraziorik handiena eman behar zaio. Merezimendu hori eta industriako bestelako kultur ondasunak alderatzen baditugu, BLGetako Labe Garaia dugu, zalantzarik gabe, Euskal Industri Ondarearen lehen tokian. Hori dela-eta, kultur ondare izendatu zen 2005ean, monumentuaren kategoriarekin. Babestutako gunearen barruan, Labe Garaia bera sartzen da, antzinako funtzionamenduari zegozkion zenbait elementu osagarriekin: hiru berogailu, gas-kolektorea, arazketa-sistema eta koladana.

**Testua:** María Molinuevo.  
María Romano.



### 1. Labe Garaia

Sestao.

#### Nola heldu:

A-8 errepidea hartuko dugu Santanderrerantz; Sestaon irten eta herria (Barakaldo) itsasadarraren norabidean zeharkatu ondoren, Labe Garaia dagoen kaira iritsiko gara.

#### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Barakaldo)

- Franco Belga enpresako mea kargatzeko tokia .

(Bilbao)

- Grandes Molinos Vascos.